

**Atentatua Gasteizen**

**Auto-bomba**

■ ■ ■ Hogeiki kilo lehergai zituen bomba-autoak, eta autoa duela urtebete inguru lapurtu zuten, su-etena indarrean zela

egindakoak. ETAk Pedro Antonio Blanco teniente koronela hil zuen pasa den urtarrilaren 21ean, eta hogeiki kilo lehergai erabili zituen auto baten ezkutata.

**Javier Rojo, lehena agertzen**

PPko hainbat politikari izan ziren lehenak atentatuaren lekura iristen. Carmelo Barrio eta Carlos Urjiko lehenak. Oraindik ez zegoen garbi zeintzuk ziren hildakoak, nahiz eta lehen zurrumurrek zioten Buesa eta bizkarzaina izango zirela.

Arratsaldeko bostak eta hamar minututan Javier Rojo Araban PSE-EEko idazkariorde nagusia iritsi zen. Alabarekin batera etorri zen, eta ez zuen ezer aurreratu nahi izan. Oraindik ez zekien Buesa zela lurrean etzanda zegoena.

Atentatuaren lekura iritsi bezain pronto jakin zuen. Lehen malkoak isuri zituen, eta beste guztiok jakin genuen Buesa zela hildako bat.

Kazetariekin hitz egiteko ausardia atera zuen Rojok. Bere etsipena azaldu zuen, eta handik aurrera politikariaren elkartasuna jaso zuen. PPkoena lehendabizi, Iñaki Gerenabarrena Jaurlaritzako Nakazaritza sailburuarena gero -bertan zegoen EAJko kidea-, eta alderdiko beste zenbait kideena gero. Rojo Buesarekin elkarlanean aritu izan da orpoz orpo urte askotan.

Ertzaintzako artezilariek atentatuaren aztarnek aztertu zituzten arratsalde osoan. Hurbildutakei alde egiteko eskatu zieten, eta laster hurbildu ziren Buesaren lankideak eta lagunak, UGT eta CC.OO sindikatukoak, IUko kideak eta Jaurlaritzakoak.

*soslaia*

FERNANDO BUESA • PSE-EEko Arabako idazkari nagusia

*Sozialisten betiko ikurra*

Fernando Buesarekin EAeko politikari distiratsuenetariko bat desagertu da. Alderdiko bozeramailea zen Gasteizko Legebiltzarrean eta Arabako Batzar Nagusietan, eta mintzatorkia abertzaleen politika kritikatzeko erabiltzen zuen gehienbat. Azken aldian batez ere, abertzaleen ekinbide bateratuaren aurkako militante sutsua baitzen.

Azken hitzaldia pasa den ostiralean egin zuen Legebiltzarrean. Bozketak galtzera ohituta zegoen Buesa, eta, behingoz, abertzaleei irabaztea lortu zuen. Txaloekin hartu zuten bozketaren emaitza. Lehen aldiz legealdi honetan, Jaurlaritzako alderdiek ez zuten lortu oposizioko alderdi baten proposamena atzera botatzea. Buesaren azken garaipena izan zen.


Buesa gogorra izan zen abertzaleekin. Esan zuen EAJk eta EAk ez dutela ezer egiten kale biolentziarekin amaitzeko, eta Xabier Balza Herrizaingo sailburuari egotzi zion borondateirik ez izatea kale istiluekin bukatzeko.

Bilbon jaio zen 1946ko maiatzaren 29an, baina Araban bete du behar politikoa. Arabako foru diputatua izan zen 1979-83 bitartean, eta 1987an Ahaldu Nagusi izendatu zuten EAJrekin egindako aliantzari esker. Gasteizko Udaleko zinegotzia ere izan zen 1983tik 1897 bitartean.


Alderdi jeltzalearekin egindako koalizioari esker lehendakariorde izan zen. 1991. urtean Jose Antonio Ardanza lehendakariak eman zion kargu hori, eta, gainera, Hezkuntza sailburua izan zen.

Hezkuntza sailburu gisa ez zuen predikamentu onik izan euskalzaleon artean. Kritika ugari egin zizkioten leku guztietatik euskarari baino garrantzi gehiago eman ei zielako beste hizkuntzei. Sozialisten ustetan, haatik, norbaitek egin badu euskararen eta integrazioaren alde, hori Buesa izan da.


Hiru seme-alaba eta alarguna utzi ditu Buesak. Zuzenbidean lizentziatua zen, baina politikagintzari eskaini dizkio bere ezaguerak. Erakundeetako karguez gain, alderdiaren barruan pisu handiko militantea zen Buesa. Arabako sozialisten idazkari nagusia zen eta



**Buesa azken plenoan.** Joan den ostiralean izan zen Eusko Legebiltzarrean azken plenoa eta bertan parte hartu zuen Buesak.



**Arabako akordioa PPekin.** Arabako PSE-EEko Ramon Rabanera ahaldu Nagusia izatea ahalbidetu zuen bien artean lortu akordioa zela medio. Argazkian Fernando Buesa Ramon Rabanerarekin batera.



**Eusko Legebiltzarrean bozeramaile lanetan.** Fernando Buesak aspalditik Eusko Legebiltzarreko PSE-EEko taldearen bozeramaile lana egin izan du.

PSE-EEko batzorde eragileko kidea eta PSOEko Batzorde Federaletakoa.

Arabako ez dio inork bere zuzendaritza zalantzan jarri. Alderdiak igaro zituen une zailenetan ere, Buesak ez zuen oztoporik izan alderdia zuzentzeko. Javier Rojo idazkariorde nagusiarekin

batera, urteak joan urteak etorri, alderdiaren goi-goian izan da, nahiz eta batzuetan PSE-EEko korrante nagusia beste bat zela ematen zuen. PSE-EEk egin zuen azkenengo Batzar Nagusia da horren lekuko. Nicolas Redondok gipuzkoarrek egin zuen aliantza kargua lortzeko. PSE-EE-ren barruan zegoen korrante euskaldunagoarekin bat egin zuen Redondok, eta Buesaren eta Rosa Diezen laguntza baztertu zuen. Une batez batzorde eragiletik at geratzeko arriskuan izan zen, baina Arabako militanteei esker batzorde eragileko kargua ez galtzea erdietsi zuen. Buesaren lidergoa kritikatu zuten, bestalde, ez zuten emaitzik lortu; izan ere, Arabako Batzarretan ez zuten inoiz kargurik hartzea lortu. Ezagutzen dutenen arabera, politikagintzan sozial-demokratziaren esparruan egin zituen lehen urratsak. Trantzizioan, hala ere, alderdi sozialista aukeratu zuen karrera politikoa egiteko. Ezkerraren eta eskuinaren arteko bereizketa bere hitzaldien bigarren ezaugarria izan da, lehen a bertzaleetik bereiztea izan den bezala.

Sozialisten eta popularren arteko ezberdintasunak lausotu diren Araba honetan, ezberdintasuna non zegoen azpimarratzea gustatzen zitzaien. Izan ere, berak asmatu zuen Araban PPekin egin beharreko politika. Bi ezaugarri zituen politika horrek: boterea PPri eman EAJ zigortzeko; eta erakundeen lidergoa PPri emanda, ezinezkoa egin haien gaitasuna erakundeak gobernatzeko.

Ekaineko hauteskunde ondoan praktikara eraman zuen politika hori. Horregatik gobernatzen dute Alfonso Alonsok Udalean eta Ramon Rabanerak Diputazioan. Baina biei ukatu egin die laguntza aurrekontuak eta arau garrantzitsuak aurrera ateratzeko. Politika horrekin agerian utzi nahi zuen PPK ez dakiela gobernatzen. Martxoko hauteskunde kanpaina abian jarri zuen Buesak pasa den ekainean. Ezingo du ikusi, ordea, asmatu zuen kanpaina horren emaitza.

Felix Iriarte